



Etxez Etxeko Laguntza Programaren baitan langile bat kontratatzeko oinarriak (Prozesua gainditzen duten hautagaiekin lan-poltsa eratuko da)

Oinarrien xedea

Oinarri hauen xedea da Etxez Etxeko Laguntza Programaren baitan Zaldibiako udalerrian etxez etxeko zerbitzua emateko langile bat hautatzea da.

Lanpostuaren deskribapena

Etxez etxeko zerbitzua ematea Zaldibiako udalerrian

Lanpostuko eginkizunak

Etxez etxeko zerbitzua ematea, Zaldibiako herrian, onuradunei laguntza pertsonala eta etxeko lanak (dagokionean) emanez.

Hautagai izateko baldintzak

- **Kualifikazioa:** Arreta soziosanitarioa etxean emateko lanbide kualifikazioa.
 - Etxez etxeko laguntzailearen profesionaltasun ziurtagiria.
 - Gizarte erakundeetan mendekotasuna duten pertsonen arreta soziosanitarioa emateko profesionaltasun ziurtagiria (Baliokideak)
- **Gidatzeko baimena:** 3.500 kg.-tik beherako ibilgailuak gidatze baimena eta ibilgailuaren disposizioa
- **Euskara maila:** 2. Hizkuntza Eskakizuneko euskara maila (B2) izatea derrigorrezkoa da. Hori dela eta, agiria aurkeztu beharko dute hautagaiek. Alabaina, agiririk ez duten hautagaiei proba bat egingo zaie elkarrizketan eskatutako euskara maila badutela frogatzeko. Froga horren emaitzak barnerako balioko du eta bakarrik deialdi honetarako.



Baloratuko da

Lan esperientzia :

- a) Etxez etxeko laguntza zerbitzuan, administrazio publikoan eta enpresa pribatuan, bietan.
- b) Zahar-egoitzan lana, administrazio publikoan eta pribatuan

Hautagai kopurua

Lanbiden izena eman duten hamabost izangaiak onartuko dira gehienez ere

Epaimahai kalifikatzailea

Lehendakaria:

- Katrin Lizarralde Nazabal. Zinegotzi andrea (Ordezkoa: Esti Mujika Mariezkurrena, zinegotzia)

Udal langileen ordezkaria:

- Imanol Ikutza Arruti jauna edo berak izendatutako ordezkoa

Idazkaria:

- Maria Jose Arrizabalaga Etxeberria andrea, gizarte langilea (Ordezkoa, Maria Jesus Gorospe Guereñu andrea, Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzailea)

Kontratazioaren baldintzak

Kontratu mota:	Programa bidezko lan kontratua
Kontratuaren iraupena:	12 hilabetekoa (luzagarria)
Lan-jarduna eta ordutegia:	%100 lan-jarduna, Udalak beharren arabera erabakitzen duen ordutegiarekin
Hasteko aurreikusitako data:	2024ko urriaren 14a
Hileko/urteko soldata gordina:	2.418,11 € * 14 ordainketa = 33.853,54 € (urteko gordina)